

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



IV MODULOA

ANIZTASUNA ESKOLAN

HEFA II ERAIKINA: OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA

	31 taldea	32 taldea
Eskola inklusiboaren oinarriak	Saio Teorikoak: Andoni Argiñano GA1 eta GA2: Ander Azkarate	Leire Ugalde
Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan	GA1: Ilargi Quevedo/Lorena Revuelta GA2: Ilargi Quevedo/Lorena Revuelta	Ilargi Quevedo
Lehen Hezkuntzarako hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan	GA1 eta GA2: Eider Rodriguez	Kepa Matxain
Ikastetxearen antolakuntza	GA1 eta GA2: Nerea Permach	Ander Azkarate

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Konpetentziak eta ebaluazio irizpideak.....	4
3. Taldeen egitura.....	5
4. Ebaluazioa.....	6
5. Lan gidatua	
5.1. Lanaren aurkezpena.....	6
5.2. Lanaren urratsak.....	7
6. Entrega-gaien egitura eta formatua.....	8
6. Kronograma.....	11
7. Eranskinak	
1. eranskina: Talde lanerako errubrika.....	10
2. eranskina: Entrega-gaien ebaluaziorako errubrika.....	11
3. eranskina: Sozializazioaren ebaluazio irizpideak.....	12
4. eranskina: Taldeen fitxa.....	13
5. eranskina: Moduluaren ebaluazio gida ikasleentzat.....	14
6. eranskina: Erreferentziak jasotzeko araudia (APA arauak).....	14
7. eranskina: Moduluko lana egiteaz salbuestea.....	15
8. eranskina: Moduluko lana gainditu ezean.....	15

1. Sarrera

Aurreko moduluetan egin bezala, 2. mailako bigarren lauhileko honetan ere, moduluko irakasgai guztien artean lan modularra jarriko da martxan. Irakasgai bakoitzak bere konpetentziak ditu, baina hainbat konpetentzia zeharkakoak dira, irakasgai guztien artean landu beharrekoak. Horiek lortzera bideratua da hemen aurkeztzen den lana. Lauhileko honetan honako irakasgaiak izango dituzte ikasleek:

- Eskola inklusiboaren oinarriak (6 kreditu)
- Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan (6 kreditu)
- Lehen Hezkuntzarako hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan (6 kreditu)
- Ikastetxearen antolakuntza (6 kreditu)

2. Konpetentziak eta ebaluazio irizpideak

Ondoko taulan zehazten dira Lehen Hezkuntzako Graduako titulazioaren arabera modulu honetan landu behar diren zeharkako konpetentziak eta konpetentzia horietatik eratortzen diren ikaskuntza-emaitzak.

GRADUKO KONPETENTZIAK	LAN MODULARREKO KONPETENTZIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
G004	1. Lehen Hezkuntzako ikasgelan aniztasunaren inguruan eman daitezkeen egoerak identifikatzea eta taldean horren berri elkarri ematea.	1.1. Aniztasunaz begirunez hitz egiten du.
		1.2. Gatazka, egoerak, hobekuntzarako eta aldaketarako erabilgarri ikusten ditu.
		1.3. Elkarlanean konfiantzaz aritzen da.
G011	2. Hezkuntzaren arloko dokumentazio zientifikoak bilatzea, gaur egun onartuak diren datu baseak erabiliz hautatzea (Dialnet, Web of Science, Scopus, Web of Knowledge) eta marko teorikoa osatzea.	2.1. Esanguratsuak diren iturriak bereizten ditu.
		2.2. Jasotako informazioa bahetzen eta uztartzen du.
G013	3. Hezkuntza gaietako buruzko dokumentuak zuzentasunez idaztea, ideien antolaketa egokia eginez, kohesioa mantenduz eta gidoian agertzen den eskema jarraituz.	3.1. Testua era kohesionatu, koherente, egoki eta zuzenean taxutzen du.
		3.2. Gaiari dagokion terminologia espezializatua erabiltzen du.
		3.3. APA arauak behar bezala jarraitzen ditu.

G005 G008	4. Hezkuntzako testuinguru eta egoerei buruzko teoriak (dokumentazio zientifikoa) aztertuta, praktika zehatzekin uztartzea eta diziplina anitzetatik osatutako ekarpenak proposatzea, sormenez.	4.1. Teoria desberdinen argi-ilunak jasotzen ditu.
		4.2. Teoriak aztertutako kasuarekin lotzen ditu.
		4.3. Planteatutako egoerei aurre egiteko hezkuntza erantzun egokiak proposatzen ditu.
		4.4. Taldearen nortasunetik abiatutako proposamenak egiten ditu.
G013	5. Ikerketa prozesuan koherentziaz antolatutako informazioaren eta elaboratutako ideien sintesia ahoz aurkeztea eta besteen diskurtsoak irekitasunez errespetatzea.	5.1. Eskolako aniztasuna aztergai duen ikerketaren emaitza ahoz jendarteratzen du mahai-inguruaren testuinguruan.
		5.2. Trukean jasotako iritzia begirunez onartzen ditu.
		5.3. Sor daitezkeen diskurtso anitzak aintzat hartzen ditu.
G012	6. Hezkuntza erakundeetako aniztasuna aztergai izanik, gogoetarako galderak eta hobekuntza egingarriak planteatzea, modu kolektiboan hausnarketa kritikoa sortaraziz.	6.1. Planteatutako hezkuntzarako aniztasun egoerak irizpidez balioesten ditu.
		6.2. Kasu bakoitzaren esku-hartzea hobetzeko proposamenak egiten ditu.

3. Taldeen egitura

- Lau edo bosteko taldeak osatuko dira moduluko lana burutzeko.
- Taldeak irakasleek aukeratuko dituzte edo ausaz osatuko dira.
- Talde bateko kide izateak berekin dakar eskoletara etortzeko konpromisoa eta talde-lanean parte hartzeko betebeharra.

4. Ebaluazioa

Moduluko lanak irakasgai guztietako ebaluazioaren %20 balioko du. Gainerako %80 irakasgai bakoitzeko irakasleak zehaztuko du. Irakasgaiak gainditzeko nahitaezkoa izango da moduluko lana ere gainditzea. Irakasgairen bat gainditzen ez bada, baina moduluko lana bai, horri dagokion nota gorde egingo da ezohiko deialdira arte eta alderantziz.

Talde lan bakoitza bi irakasleren artean tutorizatuko da. Aintzat hartuko da zereginak epean eta behar bezala aurkeztea, hau da, eskakizun zehatzei erantzutea eta, oro har, lanaren prozesua behar bezala burutzea. Era berean, egindako iradokizunak entrega-gaietan kontuan hartzea.

- Moduluko lanaren ebaluazioa (%20):
 - Entrega-gaiak (1 puntu guztira):
 - 1.–3. entrega-gaiak: 0,1 puntu bakoitza
 - 4. entrega-gaia (ikastetxeari itzuli beharko zaiona): 0,6 puntu
 - Auto eta talde ebaluazioa: 0,1 puntu
 - Lanaren emaitzaren kontakizun kolektiboa: 1 puntu

Ikasle guztiek egin behar dute moduluko lana (ikus 9. eranskina, "Moduluko lana egiteaz salbuestea", azken orrian). Moduluko irakasgai guztietan matrikulatuta ez dauden ikasleen kasuan, honela jokatu da: irakasgai bakarra egin behar duen ikasleak irakasleak zehaztutako ebaluazio-sistema jarraituko du eta ez du moduluko lanik egin beharko. Moduluko bi irakasgaitan edo gehiagotan matrikulatuta dauden ikasleek moduluko lana egin beharko dute.

5. Lan gidatua

5.1. Lanaren aurkezpena

Modulu honen helburua da Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean kokatutako egoera baten analisia egitea eta egoera horri erantzun egoki eta arrazoitu bat proposatzea. Horretarako, praktikaldian aniztasunarekin lotura duen egoera bat hautatuko da, non modulua osatzen duten gutxienez hiru irakasgairen edukiak, ikuspegiak edo elementuak esplizituki agertu beharko diren. Prozesu hori ikasle tutoreekin eta ikastetxeko tutorearekin adostu ondoren, egoerari erantzuteko informazio zientifikoa bilduko da, marko teoriko bat osatuz eta lanaren behin betiko helburuak definituz. Marko teoriko hori oinarri, helburuei erantzuteko proposamen bat diseinatuko da, eskola-komunitateak egoera horri eman diezazkiokeen erantzun posibleen artean kokatuko dena. Behin proposamena landuta, ikastetxearekin partekatuko da, eta, azkenik, eskolari egindako itzulera ondoren, prozesuaren eta emandako erantzunaren sozializazioa egingo da, eztabaida gidatuen bidez.

5.2. Lanaren urratsak

5.2.1. Taldeen osaketa: taldearen fitxa bete eta eGelara igo.

5.2.2. Lanaren garapena: Lana atalez atal osatuko da. Atal bakoitzeko eGelan eskuragai dauden txantiloak bana osatu beharko da.

A) Egoera identifikatu eta irakasle tutorearekin eta eskolako irakaslearekin adostuko da.

- **Egoeraren aukeraketa:** Practicum-ean bizitako edo ikusitako eta aniztasunarekin lotura duten egoera konplexu desberdinak identifikatu eta horien artean bat aukeratuko duzue.
- **Egoeraren deskribapena:** Gogora ekarri duzuen egoera horretan zer gertatzen zen ahalik eta modurik zehatzenean deskribatu ezazue
- **Egoerak barne hartzen dituen gakoak identifikazioa:** Deskribatu duzuen egoera horren gakoak zein diren aztertu eta jasoko dituzue. Hau da, irakasle bezala esku-hartu behar bazenute, kontuan hartu beharko zenituzketen elementuak identifikatuko dituzue.
- **Egoerari erantzuteko behin behineko helburuak finkatu:** Behin egoeraren gakoak deskribatuta, lanaren behin behineko helburuak adostuko dituzue.

B) Informazioa bilatu, hautatu eta aztertu ostean, marko teorikoa idatziko da.

Identifikatutako egoerari, gakoei eta behin behineko helburuei lotuta, informazio zientifikoa bilatu, hautatu eta aztertuko da. Informazio horren helburua da egoera sakonago aztertzea, behin behineko helburuak berrikusi eta birformulatzea, eta ondorengo esku-hartze proposamena modu egokian bideratzea. Hala, taldekide bakoitzak aurkitutako informazioa gainerako taldekideei aurkeztu ondoren, marko teoriko bat idatziko da, APA araudiari jarraituz (testu barruan zein erreferentzia bibliografikoen zerrendan). Marko teorikoan bildutako edukiak kontutan hartuta, behin behineko helburuak berrikusi eta doitu beharko dira behin betiko helburuak finkatzeko.

D) Egoerari erantzuteko proposamena egin

Ezarritako behin betiko helburuetatik abiatuta, egoerari erantzuteko proposamen bat diseinatu eta ikastetxeari aurkeztu beharko zaio. Proposamen hori aurretik landutako marko teorikoan oinarrituko da, eta bertan jasotako ekarpen kontzeptual eta zientifiko garrantzitsuak modu koherentean integratuko dira. Lehen Hezkuntzako irakasle-taldeari zuzenduta egongo da, eta helburu izango du kasuaren ulermena erraztea eta horri hezkuntza-ikuspegitik nola ekin azaltzea, ikasleen ezaugarri ebolutiboak, hezkuntza-testuingurua eta ikastetxearen errealitatea kontuan hartuta. Proposamena zentroari formatu librean aurkeztuko zaio (dokumentu idatzia, bideoa, material didaktikoa, ikus-entzunezko baliabidea, etab.), betiere lanaren helburuak, edukien koherentzia eta izaera akademikoa errespetatuz.

E) Ikasketa prozesuaren eta lanaren emaitzaren kontakizun kolektiboa

Behin eskolan lana partekatuta, fakultatean aurkeztuko da, prozesuan zehar egindako hausnarketak eta hartutako erabaki nagusiak azalduz Taldeek proposamenak eta ikasitakoak partekatuko dituzte, horretarako baliabide desberdinak erabiliz. Lehenik, azalduko da egoera nola identifikatu zen eta zein tentsio edo zalantza sortu ziren. Ondoren, marko teorikoak egoera ulertzen nola lagundu duen jasoko da, zein erabaki hartu diren eta proposamena nola garatu den. Halaber, proposamena eskolara eramatean jasotako feedback-a eta deboluzioa bera aztertuko da: nola egin den, zer jaso den, zer aldatu litzatekeen eta zer gertatzen den oraindik lantzeko. Amaitzeko, partekatuko dira ikasketa nagusiak eta hausnarketa pertsonalak: zer ikasi den prozesu osoan eta zer eramango den etorkizuneko egoera konplexuetara.

Helburua ez da soilik emaitzak erakustea, baizik eta ikasketa-prozesua eta ikasitakoa modu kolektiboan partekatzea, eztabaida piztea eta elkartruke aktiboa sustatzea.

H) Auto eta talde ebaluazioa.

Azken txantiloiarekin batera, talde lanaren errubrika beteta entregatu beharko da. Horrez gain, moduluko lanaren ebaluazio orria (9. eranskina) eta bestelako dokumentuak.

6. ENTREGA-GAIEN EGITURA ETA FORMATUA

Formatuari eta aurkezteko moduari dagokionez honako ezaugarriak kontuan hartu beharko dira:

- Erreferentzia bibliografikoak eta aipuak APA 7 (American Psychological Association)-ren arauen arabera emango dira.
- Letra-tamaina: ARIAL 12
- Lerro-arte: 1,5.
- Formatua: Word eta PDF

7. Kronograma

ASTEA	ZEREGINA	NOIZ
1. astea	Txostena aurkeztu, taldeen berri eman eta zalantzak argitu.	31 TALDEA: "LHko Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan" irakasgaiko saio praktiko batean. 32 TALDEA: "Eskola inklusiboaren" irakasgaiko saio praktiko batean.
2. astea	Practicumean ikusitako egoera desberdinak taldean aztertu eta bat aukeratu. Aste horretan irakasle tutorearekin eta eskolari burutuko den lanaren berri eman.	31 TALDEA: "Eskola inklusiboaren oinarriak" irakasgaiko saio praktiko batean. 32 TALDEA: "LHko Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan" irakasgaiko saio praktiko batean.
3. astea	I. txantiloia osatu eta eGelara igo.	31 TALDEA: "Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan" irakasgaiko saio praktiko batean 32 TALDEA: "Eskola Inklusiboaren Oinarriak" irakasgaiko saio praktiko batean
4. astea	II. txantiloia osatu eta eGelara igo. -Egoera aztertu eta gaiak dakiguna eta jakin nahi duguna definitu.	31 TALDEA: "LH-ko Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan" irakasgaiko saio praktiko batean.

	-Behin behineko helburuak definitu.	32 TALDEA "Zailtasunak" irakasgaiko saio praktikoko batean.
5. astea	Aipuak APA 7 araudiaren arabera egiteko eta informazio bilaketarako baliabideak eskaini.	31 TALDEA: "Ikastetxearen Antolakuntza" irakasgaiko saio praktikoko batean. 32 TALDEA: "Ikastetxearen Antolakuntza" irakasgaiko saio praktikoko batean.
6. astea	II. txantiloia feedbacka.	Tutorearen saio praktikoko batean.
9. astea	III. txantiloia entregatu .	EGELA-ren bidez.
10. astea	III. txantiloia feedbacka.	Tutorearen saio praktikoko batean
11. astea	IV. txantiloia osatzen hasteko tartea	31 TALDEA: "Ikastetxearen Antolakuntza" irakasgaiko saio praktikoko batean. 32 TALDEA "Ikastetxearen Antolakuntza" irakasgaiko saio praktikoko batean.
13. astea	III eta IV. Txantiloia amaitzeko tartea	Irakasgai guztietako saio guztietan.
14. astea	Eskoletan deboluzioa egiteko eta ekarpenak jasotzeko astea.	Eskola orduz kanpo.
15. astea	Sozializazioa.	Goizetan 8:30-10:30 eta 11:00-13:00.

I. eranskina: talde lanerako errubrika

	TALDE LANA VERSUS LANTALDEA/ELKARLANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA					
	(BALORAZIOA: 1: ESKAS; 2: HOBETU BEHAR; 3: NAHIKO; 4: OSO ONGI; 5: BIKAIN)					
IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK	1	2	3	4	5
EKARPENAK eta PARTAIDETZA	- Helburuak argitzen eta adosten saiatzen da. - Taldearekin partekatzen ditu ideiak eta iritziak. - Besteei eskatzen dizkie ideiak eta iritziak eta saiatzen da hauek zabaltzen eta osatzen, lanean integratzen. Ezagutza sakontzeko besteei ideien argudioak eskatzen dizkie. - Ulertzen ez duenean galdetzen die lankideei, eta azalpena berak baldin badaki lankideei eskaintzen die.					
JARRERAK	- Jokaera positiboa dauka, aktiboki entzuten du eta parte hartzen du, - Besteen partaidetza bultzatzen du. - Lankideei laguntza ematen die eta beren merituak aitortzen ditu. - Ideiak kritikatzeko ditu, ez pertsonak. - Talde kohesioa mantentzen saiatzen da eta lankideen gogo-aldarteak kontuan hartzen saiatzen da. - Zailtasun aurrean saiatu egiten da, taldekideak animatu egiten ditu eta ikaskuntzan onartu egiten ditu arriskuak.					
ERANTZUNKIZUNA	- Adostutako arauak betetzen ditu. - Bere lanak adostutako epeetan ematen ditu. - Bere lan erritmoak ez du oztopatzen taldeko planifikazio. - Lana eman baino lehen orraztu egiten du. - Hartutako konpromisoak betetzen ditu.					
AGERTZE eta PUNTUALTASUNA	- Bilera guztietara agertzen da. - Bileretara garaiz agertzen da eta bukaera arte ez du alde egiten. - Kaleren bat egiten badu edo berandu ailegatzeko bada ongi justifikatzen du.					
GATAZKEN KONPONKETA	- Desadostasun edo gatazka egoeretan besteen iritziak eta iradokizunak entzuten ditu eta saiatzen da onartzen. - Modu asertiboan adierazten ditu bere desadostasunak. - Saiatzen da beste aukerak bilatzen eta irtenbide adostuak onartzen. - Tentsioak bideratzen saiatzen da. - Entzute eraginkorra bultzatzen du eta komunikazioa errazten du.					
	Egokitua. Iturriak: Johnson, D.W eta Johson, R.T. (2014): <i>La evaluación en el aprendizaje cooperativo</i> .Espainia, Edit. SM. Chica Merino, E. (2011).Una propuesta de evaluación para el trabajo en grupo mediante rúbrica. <i>Escuela Abierta</i> , 14, 67-81.					

II. . eranskina: entrega-gaien ebaluaziorako errubrika

EDUKIAK	6	Koherentzia	Ideiek progresio logikoari segitzen diote. Ideiak integraturik daude testuaren osotasunean, jauzi handiegirik gabe eta estilo-jauzi handirik gabe. Batasuna antzematen da. Aztergaia finkatuta dago. Proposatutako egituraren arabera antolatu da. Irakurlea ez da erraz galtzen. Antolatua dago.
		Diziplinartekotasuna	Aztergaia enfokatu eta garatzean, diziplina ezberdinen ikuspuntutik aztertzeko ahalegina antzematen da. Irakasgai guztietatik nolabaiteko irakurketa edo ekarpena ikusten da.
		Dokumentazioa	Informazio iturri aberasgarriak eta askotarikoak erabili dira.
		Analisia	Eduki teorikoen eta aztertzen den egoeraren arteko lotura egiten da.
		Ondorioak eta proposamenak	Proposamenak egokiak eta baliagarriak dira aztertu den egoerarako. Hobekuntzarako plan horiek egingarriak dira.
		Hausnarketa	Prozesuaren amaieran, lana egiterakoan izandako ahulgune eta indarguneak agerian uzten dira. Ikaskuntza prozesuaren gaineko talde hausnarketa egiten da.
FORMA	4	Ideen Antolaketa	Ideiak paragrafotan banatzen dituzte eta ideia nagusiak argi adierazita daude.
		Kohesioa	Ideen arteko loturak modu egokian egin dira, erreferentzia mekanismoak (sinonimoak, anaforak ...) eta lotura mekanismoak (lokailuak, antolatzaileak) behar bezala erabiliz.

		Terminologia	Kontzeptu eta terminologia espezializatua erabili da eta lan akademikoei dagokien erregistroa erabili da oro har. Hiztegiaren erabilera zaindu dute.
		Formatua	Egituraketaren alderdi formalak errespetatu ditu: orrien zenbakitzea, azpi-izenburuak ...
		Erreferentziak	Erabili dituen iturriak egoki daude aipaturik, bai testuan integratuta eta bai amaieran, erreferentzia bibliografikoen atalean, APA arauari jarraituz.
		Zuzentasuna	Hizkuntzaren alderdi formalak errespetatu dituzte. Egindako akatsak ez dira sistematikoak eta ez dira larriak. Sintaxia, puntuazio-markak, deklinabidea, mugagabe/mugatua eta halako elementu linguistikoak ondo erabili dituzte.

III. eranskina: sozializazioaren ebaluaziorako errubrika

EDUKIA	6	Sintesia	Taldekide bakoitzak behar bezala sintetizatu du egindako lana emandako denboran. Modu koherentean antolatu ditu ideiak eta argi azaldu du lanaren edukia.
		Hausnarketa	Taldeetako partaideek solasaldian parte hartu dute eta lanaren inguruko hausnarketa kritikoa egin dute. Besteen lana eta ekarpenak aintzat hartuta, landutako edukien eta ezagutzen gainean modu kolektiboan hausnartu dute.
		Hobekuntza proposamenak	Beren lanetik nahiz beste taldeen iritzi eta hausnarketetatik abiatuta, beren lanean egingo lituzketen hobekuntzak proposatu dituzte taldekideek.
FORMA	4	Zuzentasuna	Hizkuntza zuzen erabili dute taldeko kideek eta ez dute akats larriarik egin.

		Egokitasuna	Saioan akademikoki eskatzen den formaltasun maila mantendu dute beren parte hartzeetan. Txandak errespetatu dituzte eta besteeiko errespetuz jardun dute hitza hartzean.

IV. eranskina: taldeen fitxa

ANIZTASUNA ESKOLAN MODULUKO LANA

LAN TALDEAREN IZENA:

LAN TALDEAREN E-MAILA ETA TELEFONO ZENBAKIA:.....

HAUTATUTAKO EGOERA

Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:

Izen-abizenak: E-maila:	Argazkia:
----------------------------	-----------

V. eranskina: Moduluaren ebaluazio gida ikasleentzat

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (moduluko konpetentziak txosteneko 3. eta 4. orrialdeetan topatuko dituzue)

- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?

- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarreko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue ...).

- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarreko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute ...).

- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?

VI. eranskina: Erreferentziak jasotzeko araudia (APA arauak)

Lanaren erredakzioan jarraitu beharreko araudia ondorengo estekan jasotzen da:

https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/42398/APA_7.pdf?sequence=7&isAllowed=y

VII. eranskina: moduluko lana egiteaz salbuestea

Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute moduluko lana egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.

Graduko ikasleek moduluko lana egin beharko dute, baldin eta gutxienez, modulu bateko bi irakasgaitan matrikulatuta badaude nahiz eta horietan ebaluazio ez jarraitua aukeratu. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute moduluko lana egin beharrik izango.

Moduluko lana egiteaz salbuetsita dauden kasuan, ikasleek ez dute beste frogarik egin beharrik izango. Kasu honetan, irakasgaiaren nota 10etik emango da eta irakasgai bakoitzeko irakasleak erabakiko du moduluan landu beharreko konpetentziak irakasaiko ebaluazioan nola barneratuko diren.

VIII. eranskina: moduluko lana gainditu ezean

Moduluko lana gainditzea ezinbestekoa izango da irakasgai guztiak gainditzeko. Moduluko lana gainditu ezean, ezohiko deialdian berriro aurkeztu beharko da lana. Ezohiko deialdian ere gainditzen ez bada, hurrengo ikasturtean EZINBESTEKOA izango da lan modularra berriro egitea. Kasu honetan, irakasgai bakoitzeko irakasleak erabakiko du lan modularra egiteaz gain zein beste ebaluazio prozedura erabiliko duen irakasgaiari dagokion edukia gainditutzat emateko.